



Ayuntamiento de IRUÑA DE OCA

IRUÑA OKAKo Udala



IRUÑA OKAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA TESTU BATEGINA

**INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA
II.ERANSKINA ERAGIN LINGUISTIKOAREN
TXOSTENA**

**ERAGIN LINGUISTIKOAREN TXOSTENA
2023ko AZAROA**



INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIAREN II.ERANSKINA

ERAGIN LINGUISTIKOAREN TXOSTENA

AURKIBIDEA

1.	AURREKARIAK ETA HELBURUA	1
2.	ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOARAKO IRIZPIDE OROKORRAK	1
3.	ERAGIN LINGUISTIKO EBALUAZIOAREN METODOLOGIA	2
3.1.	EGUNGO EGOERAREN ANALISIA	2
3.2.	HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERKETA.....	3
3.3.	ERAGIN LINGUISTIKOA KALKULATZEKO METODOA	3
3.4.	EUSKARA BABESTEKO NEURRIAK ETA JARDUERAK	4
4.	IRUÑA OKAKO EGUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA	4
4.1.	EUSKARAREN EZAGUERA.....	4
4.2.	AMA-HIZKUNTZA	6
4.3.	EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN.....	6
4.4.	IKASKETA MAILA EUSKARAZ	8
4.5.	UDALERRIAN EUSKARA SUSTATZEKO POLITIKAK (ARNASGUNEAK) ..	9
5.	EAEko EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA	10
5.1.	ERAGIN-EREMUA.....	10
5.2.	EUSKARAREN ERABILERA EGUNEROKO BIZITZA ESPARRUEN ARABERA	11
5.3.	EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA	12
6.	DEMOGRAFIA ETA MIGRAZIO-MUGIMENDUAK	12
6.1.	BIZTANLEEN PIRAMIDEA	12
6.2.	HAZKUNDE BEGETATIBOA	14
6.3.	MIGRAZIO MUGIMENDUAK	15
7.	PLAN OROKOR BERRIAREN PROPOSAMEN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA.....	17
7.1.	ERAGIN LINGUISTIKOAREN IZAERA	17
7.2.	EUSKAREN BILAKAERA INDIZEAREN KALKULUA (EBI).....	18
8.	EUSKARAN ERAGINA DUTEN PLANGINTZAKO HAINBAT ALDERDITAN HARTUTAKO NEURRIAK.....	23
9.	NEURRI ZUZENTZAILEAK.....	29



ERAGIN LINGUISTIKOAREN TXOSTENA

Ondorengo txostena Iruña Okako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean sartuko da Planaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren ondorio bezala. Iruña Okako Plangintza esparruan Euskara erabileraren normalizazio erabilpenaren eragin posibleak aztertzen ditu. Helburua HAPOaren garapenean izan dezaketen eragin negatiboak murriztea da eta gaztelerari dagokionez erabilera berdintzea.

1. AURREKARIAK ETA HELBURUA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina ebaluatuko da, eta ebaluazio horretatik ondorioztatzen diren eta egoki irizitako neurriak proposatuko dira.

Iruña Oka Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen berrikuspenak, udalerraren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planetariko bat da, hortaz, agiri hau idazten da Plan Orokor berrian izan ditzakeen hirigintza proposamenetan afekzio linguistiko horiek aztertzeko helburuarekin, Euskara zehatz mehatz.

2. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

2/2016 Legeak ondorengoetan erregulazio falta dauka eragin linguistiko ebaluazioari dagokionez: eduki materiala eta formala, tramitazioa, hirigintza plangintzarekiko koordinazioa, izaera, balio juridikoa, etab.

Agiri honen idazketarako tresna legala existitzen ez denez, ELeren (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) tresna kontuan izan da, aldi berean UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) erakunde publikoa idatzia. Hortik aukeratu dira udalerrri horretan izan daitezkeen eraginak aztertzeko egokitzat jotzen diren alderdiak.

UEMAk proposatutako metodoa galdera estandarizatu batzuei erantzuteko txosten bat egitean datza, lortutako erantzunen arabera, hainbat ondorio aterako dira, hala ere, planak edo proiektuak eskariren erabileraren normalizazioan eraginik ez duela ondorioztatuko da. Beste kasu batzuetan berriz, planak edo proiektuak planak edo proiektuak euskararen erabileraren normalizazioan eragina dute. Kasu honetan, zenbait neurri hartu beharko dira ondorio hauek arintzeko. Horrek guztiak, ez du



esan nahi antolamenduan hainbat neurri hartu behar direnik euskararen erabilera eta erabilera horren erabiltzaileekiko errespetua bultzatzeko.

Txostena udalarentzat tresna erabilgarria izan dadin egiten da, udal egoera euskararekiko hobeto ezagutzeko oinarri izan dadin, bai gaur egun, bai etorkizunean (8 urte barru). Lanak behar besteko oinarria emango dio Administrazioari euskararen normalizazio-prozesu oso bat abian jartzeko, eta jarraipena emango dio lan horri, hizkuntza sustatzeko politikak ezarriz.

Hala ere, hizkuntza-ebaluazioaren edukia eta irismena Plan Orokorren esku-hartze eta erabaki eremuarekin lotzea hartzen da irizpidetzat, zehaztu beharreko neurri zuzentzaileak barne. Beharrezkotzat jotzen da dokumentu honetan eduki teknikoa eta proposamen-edukia planaren esku-hartzera mugatzea, aurreko atalean aipatu den bezala, beste helburu batzuetarako oinarria izan badaiteke ere.

Ebaluazio modu orokor eta bateratuan egiten da udalerrri osoan, udalerriko auzoetan edo hiriguneetan gerta daitezkeen inpaktuak modu bereizian ebaluatu gabe, ez baita uste udalerrian bertan erakunde berezirik dagoenik euskararen erabilerari dagokionez.

Txosten honen oinarria bezala, Iruña Okako egoera soziolinguistikoaren azterketa egiten da, abiapuntuko egoeraren ikuspegi argia izateko, Plan Orokorreko hirigintza-proposamenek udalerriko euskararen erabileran izan dezaketen eragina neurtu ahal izateko.

3. ERAGIN LINGUISTIKO EBALUAZIOAREN METODOLOGIA

Txostena egiteko, ondorengoak zehaztu beharko dira: abiapuntuko egungo egoera, HAPOaren proposamen ondoriozko eragin posibleak eta eragin horien arintzeko hartu beharreko neurriak, behar izanez gero.

3.1. EGUNGO EGOERAREN ANALISIA

Eguno egoera aztertzeko, erabakigarria izango da datuak zehatz-mehatz hartzea bai eta hartatik eratortzen den analisia egitea ere. Informazio fase honek zehaztapan hauei erantzuten die:

- Datu gehien lortzen dituzten iturriak EUSTATen azaltzen dira.
- Aztertutako denbora-tartea bat dator ahal den denbora gehienarekin, EUSTATen bidez datuak eskuragarri baitaude; hau da, antzinasun handieneko datuetatik (1986tik) berrieneraino (2016tik).
- Funtsean, demografiaren bilakaera, migrazio mugimenduak eta euskararen ezagutza eta erabilera mailak aztertzen dira.



3.2. HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERKETA

Txostenaren bigarren zatiari dagokionez, UEMAK ezartzen dituen jarraibideen arabera, planeko proposamenen garapenak udalerriko errealitate soziolinguistikoan izan ditzakeen eraginak aztertuko dira, eta, hasteko, honako galdetegi honi erantzungo zaio:

1. Proiektuak/planak inguruko biztanle kopuruan eragingo du?
2. Proiektuak/planak inguruko bisitarien kopuruan eragingo du?
3. Proiektuak/planak inguruko hizkuntza politikan eragingo du?
4. Proiektuak/planak inguruko hiztunen harreman-eremuan eragingo du?

Galdera horietako edozeini emandako erantzun positiboek zehaztuko dute planaren proposamenek eta dagozkien arintze-neurriek eragindako inpaktuei buruzko azterketa sakonagoa egiteko beharra adieraziko dute.

3.3. ERAGIN LINGUISTIKOA KALKULATZEKO METODOA

Zorroztasuna eta azterketa soziolinguistikotik ateratako ondorioen azterketa konparatua bermatze aldera ebaluazioa honako metodologia honen arabera egiten da, **Euskararen Bilakaera Indizea (EBI)** kalkulatu. Kalkulua zenbait indizeetan oinarritzen da, eta horien metodologia UEMAK (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) egindako hizkuntza eraginaren ebaluazioan ezartzen da.

Kalkulu honen bidez, Euskararen Bilakaera Indizearen emaitza parametrikoa lortzen saiatuko gara, eta, horretarako, honako faktore hauek hartuko ditugu erreferentziatzat:

- **Euskararen Proiektzio Indizea (EPI)**
Helburua da kalkulatuak populazio berriak euskaldunengan izan ditzakeen eraginak zehaztea (horren ondorioz, egungo portzentajea handitu edo murriztu egingo da).
- **Euskararen Hauskortasun Indizea (EHI):**
Planaren proposamenek udalerriko egoera soziolinguistikoa zein neurritan hautsi edo alda dezaketen zehaztea du helburu. Horretarako, honako faktore hauek hartzen dira erreferentziatzat:
 - Biztanleria
 - Egungo euskaldun biztanleriaren portzentajea
 - Ama hizkuntza euskara duen egungo biztanleriaren portzentajea
 - Etxean euskara erabiltzen duten egungo biztanleen portzentajea
 - Euskara babesteko egungo egituraketa programazioko neurriak



3.4. EUSKARA BABESTEKO NEURRIAK ETA JARDUERAK

Egungo egoeraren eta etorkizuneko garapenen inpaktuen azterketa, Udalak berak bultzatzen dituzkeen euskararen normalizazio-politiken oinarri izan daitekeela alde batera utzita, HAPOak berak gara ditzakeen egokitzapen-neurriak planean proposatuko dira.

Txostena idatzi ostean, Plan Orokorra garatzeko zenbait irizpide eta proposamen ezarri dira, hainbat alderdi zeharka ezartzeko, hala nola genero-ikuspegia, hiri inklusiboen sustapena eta eragin linguistiko posiblearen aurreikuspena :

Lurralde eredu trinko eta kohesionatu bat bilatu.

- Espazio zaharkituen eta erabileren nahasketa berreskuratzea
- Oinezkoentzako ibilbide seguruen sare bat sortzea, bizitegi eremuak ekipamenduen eta espazio libreekin lotuko dituenak.
- Trafikoa baretzea eta oinezkoak jartzea, oinezkoa espazio publikoa kolonizatzea animatzeko.
- Bizitegi-garapena eta jarduera ekonomikoak sustatzea, garraio kolektiboaren bidez irisgarritasuna bermatuko duen hiri-jarraitasuna eta dentsitate nahikoa sustatuz.
- Merkataritza-etxabeen kokapen estrategikoa espazio publikoetan hiri-jarduera eta bitzita sortzeko, hurbileko merkataritza indartzeko.

4. IRUÑA OKAKO EGUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa euskararekin lotutako hainbat alderditatik lantzen da: hizkuntzaren ezaguera, erabilera etxean, kalean eta euskara ama hizkuntza bezala. Aldi berean, hizkuntza-alderdien pareko migrazio-mugimenduak aztertzen dira, biak berez erlazionatuta daudela ulertzen baita.

Jarriaian Iruña Okako egungo egoera soziolinguistikoa islatzen duten atalak azalduko ditugu:

4.1. EUSKARAREN EZAGUERA

EUSTATen Iruña Okako biztanleen euskararen ezagutzari buruzko bost urteko datuak daude, 1981etik 2016ra artekoak. Datu horren bilakaera hurrengo taulan islatzen dira, bai euskalduntzat, ia euskalduntzat eta erdalduntzat jotzen diren pertsonen kopuruari dagokionez, bai biztanleria-ehunekoari dagokionez.




URTEA	EUSKARAREN EZAGUERA						
	EUSKALDUNAK		IA-EUSKALDUNAK		ERDILDUNAK		GUZTIRA
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua
1981	13	%0,77	31	%1,83	1648	%97,4	1692
1986	18	%1,17	103	%6,69	1419	%92,14	1540
1991	73	%4,94	133	%9	1271	%86,05	1477
1996	129	%8,13	189	%11,92	1268	%79,95	1586
2001	239	%12,63	421	%22,24	1233	%65,13	1893
2006	555	%22,42	641	%25,9	1279	%51,68	2475
2011	694	%23,25	952	%31,89	1339	%44,86	2985
2016	935	%28,92	782	%24,19	1516	%46,89	3233

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da.

Euskaraz dakiten biztanleen ehunekoak neurri handi batean gora egin du, 1981eko biztanleriaren %0,77 izatetik 2016ko biztanleriaren laurdena baino gehiago izatera igaro baita (%28,92). Era berean, beren burua ia euskalduntzat duten pertsonen kopuruak ere antzeko bilakaera izan du: 1981ean biztanleriaren %1,83 ziren, eta 2011n, berriz, biztanleriaren ia heren bat (%31,89). 2016an kopuru hori nabarmen jaitsi da (%24,19), eta 2006ko zifren antzekoak dira (%25,9).

Egia esan, Iruña Okan euskaldunen eta ia-euskaldunen baturak denboran zehar gora egin du, hau da, 1981eko 44 pertsonetatik 2016ko 1717etara. Hala ere, 2011. urtean gertatzen zenaren kontra, 2011-2016 bitarteko euskaldun eta ia-euskaldunen kopurua (%4,31) tarte bereko biztanleria baino txikiago izan zen (%8,30).

EAEko lurralde eremuen biztanleriaren euskara maila.





4.2. AMA-HIZKUNTZA

Udalerriko biztanleen ama-hizkuntzari dagokionez, hurrengo taulak 1986tik 2016ra bitartean euskara, gaztelania, biak edo beste ama-hizkuntza duten pertsonen kopuruaren eta ehunekoaren egungo egoera eta bosturteko bilakaera islatzen ditu.

Ondorengo taulatik ondorioztatzen da, ama hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania duten pertsonen dagozkien zifrak askoz ere txikiagoak direla hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuetan jasotakoak baino. 1986. urtetik, biztanleriaren %0,25en ama-hizkuntza euskara da eta biztanleriaren %0,13en ama-hizkuntza euskara eta gaztelera da, ehuneko hauek poliki-poliki hazi dira gaur egun arte, hortaz, datu eguneratuenak biztanleriaren %1,99 bakarrik ama-hizkuntza euskara da eta biztanleriaren %4,09en ama-hizkuntza euskara eta gaztelera.

URTEA	AMA HIZKUNTZA							
	EUSKARA		ERDARA		BIAK		BESTE BAT	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1986	4	%0,25	1547	%98,10	2	%0,13	24	%1,52
1991	12	%0,80	1486	%98,93	3	%0,20	1	%0,07
1996	12	%0,74	1592	%98,52	7	%0,43	5	%0,31
2001	25	%1,28	1851	%94,78	21	%1,07	56	%2,87
2006	46	%1,79	2359	%91,86	59	%2,30	104	%4,05
2011	62	%1,98	2814	%90,05	107	%3,42	142	%4,55
2016	66	%1,99	2930	%88,17	136	%4,09	191	%5,75

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da.

4.3. EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

1991-2016 bitartean etxean erabiltzen dutenen euskara informazio EUSTATen agertzen da, aurreko taulan agertzen diren datuak baino okerragoak dira (2016. urtean hazi da %0,33tik-%1,78ra); hala ere, etxean euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dutenen datuak aurreko taulakoak baino apur bat hobeak dira (biztanleriaren ehunekoak gora egin du pixkanaka, %0,67tik %6,83ra).

URTEA	ETXEKO HIZKUNTZA							
	EUSKARA		ERDARA		BIAK		BESTE BAT	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1991	5	%0,33	1487	%99	10	%0,67	0	-
1996	8	%0,50	1591	%98,45	16	%0,99	1	%0,06
2001	12	%0,61	1876	%96,06	32	%1,64	33	%1,69
2006	21	%0,82	2138	%83,25	70	%2,72	39	%1,51
2011	41	%1,31	2855	%91,36	125	%4	104	%3,33
2016	59	%1,78	2897	%87,18	227	%6,83	140	%4,21

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da.

Etxean euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten duten Iruña Okako biztanleen batura 1991n ama-hizkuntza euskara, euskara eta gaztelania zuten pertsonen kopuruarekin bat zetorren. Gaur egun arte, datuak antzekoak izan dira eta



2016ko datuak nabarmendu behar dira, etxean euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten duten biztanleen batura, lehen aldiz, euskara edo euskara eta gaztelania ama-hizkuntza duten biztanleen batura baino handiagoa baita.

Lortutako datuetatik ondoriozta liteke etxean gutxienez ama-hizkuntzetako bat euskara zen familietan, euskaraz hitz egin ohi dela. Hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak askoz handiagoak dira etxean erabiltzen dena baino; hortik ondorioztatzen da familiatik kanpo euskara ikasten duten pertsona gehienek ez dutela etxean erabiltzen.

Badirudi bilakaera txiki bat hasi dela, euskara ama-hizkuntza ez duen biztanleriaren zati txiki bat euskara etxean erabiltzen hasi delako, ikasi egin baitu. Honela adierazten dute 2016.urteko datuak; hala ere, ehunekoa ez da oso azpimarragarria.

EUSTATEk egindako azterketa bat existitzen da 2011.urtean hartutako datuekin, bertan euskararen erabilera aztertzen da hizkuntza ezagutzen dutenen artean. Iruña Okari dagokionez, bost urte edo gehiago dituzten 2842 biztanleetatik, %45,29 euskara dakite eta euskaldunak edo elebidunak kontsideratzen dira.

Euskaraz dakiten biztanleen %2,95 euskaldunak dira, eta honela banatzen dira:

- %26,32 euskaraz aktiboak dira.
- %42,10 euskaraz eta gaztelera aktiboak dira.
- Gainontzeko %31,58 ez dute Euskara erabiltzen.

Euskara dakien biztanleriaren %4,82 jatorriz elebiduna da eta honela banatzen da:

- Bakarrik %4,84 euskara erabiltzen dute.
- %35,48 euskaraz eta gaztelera aktiboak dira.
- Gainontzeko %59,68 ez dute euskara erabiltzen.

Euskaldun berriei dagokionez, biztanleriaren %39,94 euskara daki eta honela banatzen dira:

- %1,75 bakarrik euskaraz hitz egiten dute.
- %9,34 euskaraz eta gaztelera hitz egiten dute.
- Gehiengoa, %88,91 ez dute euskara erabiltzen.

Euskaldun partzialak berriz biztanleriaren %50,89 hizkuntza ezagutzen dute eta honela banatzen dira:

- Bakarrik %3,05 aktiboak dira euskaraz eta gaztelera.
- Gainontzeko %96,95 ez dute euskara erabiltzen.

Azkenik, gaztelera bereziki komunikatzen diren biztanleak %1,40 dira eta honela banatzen dira:

- %11,11 euskaraz eta gaztelera hitz egiten dute.
- Gainontzeko %88,89 ez dute euskara erabiltzen.

Gainontzeko biztanleria, euskara ez dakiena ezta partzialki, %3,80 da, eta biztanleen %54,43 gaztelera bakarrik hitz egiten dute.



4.4. IKASKETA MAILA EUSKARAZ

EUSTATEk euskararen alfabetatze-maila aztertu du, hizkuntza dakien biztanleriaren sektore hori zatitzen duten taldeetan. Azterlanaren datuak 2016ko errolda-datuei dagozkie.

Analisitik ondorioztatu behar da udalerrian 935 euskaldun daudela zenbatuak (biztanleriaren %28,92), gehiena %84,81, alfabetatuak daude, %10,48 erdi-alfabetatuak eta gainontzeko %5,55 alfabetatu barik.

Ia-euskaldunei dagokionez, 782 dira (biztanleriaren %24,19), %72,76 alfabetatuak daude eta %12,02 partzialki alfabetatuak, eta %15,22 alfabetatu barik.

Udalerriko biztanleen euskararen prestakuntza-mailari dagokionez, 1981-2016 tartean, EUSTATEk hamabost egunez behin bildutako datuak, ondorengo taulan islatzen dira, euskaldunka edo ia euskaldunak izanik alfabetatuta, partzialki alfabetatuta edo alfabetatu gabe dauden biztanleen kopuruari edo ehunekoari dagozkionak.

URTEA	GUZTIRA	EUSKALDUNAK				IA-EUSKALDUNAK			
		GUZT.	ALFA.	PRZIAL. ALFB.	EZ ALFB.	GUZT.	ALFA.	EZ ALFB.	PASIBOAK
1981	1692	13	12	1	0	31	24	3	4
1986	1540	18	18	0	0	103	60	16	27
1991	1477	73	63	2	8	133	106	24	3
1996	1586	129	119	8	2	189	169	11	9
2001	1893	239	216	18	5	421	308	35	78
2006	2475	555	473	71	11	641	435	83	123
2011	2985	694	573	57	64	952	579	122	251
2016	3233	935	793	98	44	782	569	94	119

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da

URTEA	EUSKALDUNAK				IA-EUSKALDUNAK			
	GUZTIRA	ALFA.	PRZIALK ALFAB.	ALFAB. GABE	GUZTIRA	ALFA.	ALFAB. GABE	PASIBOAK
1981	%0,77	%0,71	%0,06	%0	%1,83	%1,42	%0,18	%0,24
1986	%1,17	%1,17	%0	%0	%6,69	%3,90	%1,04	%1,75
1991	%4,94	%4,27	%0,14	%0,54	%9	%7,18	%1,62	%0,20
1996	%8,13	%7,50	%0,50	%0,13	%11,92	%10,66	%0,69	%0,57
2001	%12,63	%11,41	%0,95	%0,26	%22,24	%16,27	%1,85	%4,12
2006	%22,42	%19,11	%2,87	%0,44	%25,90	%17,58	%3,35	%4,97
2011	%23,25	%19,20	%1,91	%2,14	%31,89	%19,40	%4,09	%8,41
2016	%28,92	%24,53	%3,03	%1,36	%24,19	%17,60	%2,91	%3,68

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da

Gainontzeko biztanleria, erdaldunak, ez dira taulan sartu. 1981.urtean 1648 biztanletik (biztanleriaren %97,4) jaitsi da, 1339 biztanlera 2011.urtean (biztanleriaren %44,86). 2016.urtean berriz 1516 biztanlera igotzen da (biztanleriaren %46,89).



4.5. UDALERRIAN EUSKARA SUSTATZEKO POLITIKAK (ARNASGUNEAK)

Azpimarratu behar da udalerriko ikastetxeetako hizkuntza-eredua, batez ere D eredua dela eta neurri batean, B eredua ere ezartzeak gero eta gehiago herritarren euskara maila indartzen duela. Honela urteak igaro ahala euskararen erabilpena indartuz neurri handi batean.

Iruña Okako hezkuntza zentro publikoak klaseak ondorengo eredu linguistikoetan ematen dituzte:

1. EIC Iruña Okako Haur-eskola – Urdiña Isar, 0-1 urte bitarteko gela eta urtebete baino gehiago duten umeentzako gela dauka, biak D ereduak.
2. José Miguel Barandiaran HLHI, D ereduarekin haur hezkuntzako 2 eta 3 urteko geletan eta B eta D ereduarekin 4 eta 5 urteko geletan, lehen hezkuntza osoan.
3. Badaia BHI, Bigarren Hezkuntzan B eta D ereduak.

Institutu hau eraikitzeke lurzorua lortzea HAPOn eremuetako baten garapenekin lotu da, azpimarragarria da institutuaren eraikuntza Planean izan duen eragin positiboa. Gainera, José Miguel Barandiaran HLHI ikasleek lehentasuna daukate Unamunzaga de Ribera Baja HLHI institutuan matricula egiteko B edo D ereduak eta Gaubeako Gobeia HLHI institutuko D ereduak.

Udalerrian ez daude Bigarren hezkuntzako zentro publikorik, baina Badaia BHI institutuko ikasleek lehentasuna daukaten Vitoria-Gasteizko Ekialdea BHI institutuko D ereduak, edo Vitoria-Gasteizko Federico Baraibar BHIko A ereduak.

Aldi berean, eta euskarari dagokionez, azpimarratu behar da Udalak bere lokaletan AEK bitartez klaseak ematen dituela, honek laguntza handia suposatzen du euskara hizkuntzarako bereziki Iruña Okan eskola adina ez duten erabiltzaileentzat.

Alde batera utzita egun arte deskribatutako erakundeak eta hizkuntzaren ezaguerarako funtzio garrantzitsua dutenak, euskara erabiltzeko eta sustatzeko kanpainak eta beste politikak daude, eta haietariko batzuk udalerrian ezarri dira, bai administrazioaren aldetik edo erakunde pribatuen aldetik, ondorengoak dira:

- Udala euskara sustatzeko kanpainei atxikitzeari dagokionez, nabarmendu behar da Iruña Okak 2018ko Euskaraldian parte hartu duela, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Añanako kuadrillarekin 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra zehatz mehatz.
- HIRU, *Los llanos* industrialdean dagoen Euskal Herriko Garraiolarien Sindikatuaren Arabako Ordezkaritza, *Bai Euskarari* ziurtagiria dauka “Zerbitzua euskaraz” eskaini ahal izateko. Erakundearen euskara-maila egiaztatzen duen proba bat da, lan arloko euskalduntzean eragiteko eta euskararen erreferente izateko gizartearen aurrean.



5. EAEko EGOERA SOZIOLOGIA

Ondoren EAEko eta bere lurralde historikoen euskara maila aztertzen da. Taulan azken lerro bat agertzen da Iruña Okako datuei buruz, honela gaur egungo egoerarekin konparatu ahal izateko (2016).

	Guztira	Euskaldunak	la-Euskaldunak	Erdaldunak
Euskadi	2.122.895	895.942	%42,20	391.897
Araba	314.744	89.823	%28,53	61.930
Bizkaia	1.113.955	407.859	%36,62	219.598
Gipuzkoa	694.196	398.260	%57,37	110.369
Iruña Oka	3.233	935	%28,92	782

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da.

Egiazta daitekeen bezala, udalerraren euskaldun portzentajea (%28,92) Arabako batez bestekoa baino apur bat handiagoa da, eta EAEko gainontzeko lurralde historikoen azpitik dago. Hala ere, ia-euskaldunen portzentajea (%24,19) gainontzeko EAE lurraldea gailentzen du, eta Arabako batez bestekoarekin lau puntu eta erditan. Gaztelera hitz egiten duten portzentajeari dagokionez (%46,89) Arabako batez bestekoa baino ia bost puntu baxuagoa da, baina Bizkaiko eta Gipuzkoako batez bestekotik gora dago (%43,67) eta (%26,73), hurrenez hurren eta EAEko batez bestekotik ere bai (%39,34).

5.1. ERAGIN-EREMUA

Iruña Okako eragin-eremuari dagokionez, udalerrirako migrazio-mugimendu nagusiak nondik datozen ez ezik, zer udalerriri eragiten dioten ere hartu behar da kontuan, lanerako eta kultura-jardueretarako eta aisialdiari lotutako jardueretarako gune gisa, baita ekipamendu-eskaintza gisa ere.

Iruña Okan dauden EAEko barneko migrazio-mugimendu gehienek jatorriari dagokionez, aipatu behar da memorian jada ezartzen dela foku nagusia Gasteizen dagoela.

Turismo, aisialdi, ekonomia-jarduerak edo hezkuntza zentroen erakarpenaren fokuari dagokionez, erabilgarria izango da bereziki hurbileko beste udalerrientzat, Arabako Lautadari eta Arabako haranei dagokionak. Eguneroko mugimendu hauek euskaraz, gaztelera edo hizkuntza bietan egingo direnak bezala ulertuko dira. Puntu hauetan Iruña Okako biztanleekin nahasten diren pertsonen jatorriak zehaztuko du, neurri handi batean, harreman horiek zein hizkuntzatan ezartzen diren.

Jarraian, 2016. urterako lehentasunezko afektazio-eremuari buruzko datuak jasotzen dituen taula konparatibo bat jaso da:



	Guztira	Euskaldunak		Ia-erdaldunak		Erdaldunak	
Gasteiz	235.839	64.347	%27,28	46364	%19,66	125128	%53,06
Arabako Lautada	252.606	69.979	%27,70	49787	%19,71	132840	%52,59
Arabako Haranak	5826	1151	%19,76	1169	%20,06	3506	%60,18
Iruña Oka	3233	935	%28,92	782	%24,19	1516	%46,89

Taula EUSTATEko datuetan oinarritua egin da.

Datu hauetatik ondorioztatu daiteke gaur egun, Iruña Okako udalerria oro har, bere hurbileko ingurunea baino pixkat euskaldunagoa dela.

5.2. EUSKARAREN ERABILERA EGUNEROKO BIZITZA ESPARRUEN ARABERA

EUSTATEk EAE mailan euskara egunero erabiltzen duten 16 urtetik gorako pertsonen azterketa ezberdinak egiten ditu. Udalerrri bakoitzerako ez dago horri buruzko datu xehaturik, erreferentzia gisa EAE osatzen duten hiru lurralde historikoen datuak hartuko dira, bereziki Arabakoa.

Hurrengo taulan, EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleek euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duten eremuei buruzko datuak jaso dira. Datuak 2016.urtekoak dira eta biztanleriaren portzentajeetan islatzen dira.

	ARABA	BIZKAIA	GIZPUZKOA
Etxean	6,0	12,2	35,9
Seme-alabekin	8,5	16,5	40,2
Lagunekin	7,8	14,4	39,1
Lankideekin	11,6	19,6	40,1
Udaleko langileekin	10,7	17,5	45,6
Osasun zentroetako langileekin	5,2	12,6	38,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Kultura, hizkuntza politika eta hezkuntza saila. Inkesta soziolinguistikoa.

Arabako, euskaraz bereziki lankideen artean erabiltzen da eta Udalerrriko langileekin, jarraian seme-alaba eta lagunekin erabiltzen da eta azkenik etxean eta Osasun Zerbitzuetako langileekin.

Jarraian, taula berdina agertzen da baina elebidunak diren biztanleekin, eta ez biztanleria guztiarekin. Nahiz eta datuak adin tarte berdinekoa eta denbora tarte berdinean egon, irakurgaia oso ezberdina da.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Etxean	27,1	41,9	68,2
Seme-alabekin	65,6	77,9	89,3
Lagunekin	38,8	50,8	75,9
Lankideekin	49,2	57,5	73,4
Udaleko langileekin	50,6	61,8	88,1
Osasun zentroetako langileekin	25,3	46,1	76,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Kultura, hizkuntza politika eta hezkuntza saila. Inkesta soziolinguistikoa.



Biztanleria elebiduna bakarrik kontuan hartzen denez, behatu ahal izan da zelan Araban euskara bereziki seme-alabekin erabiltzen dela Udala eta lankideak jarraituz. Euskara gutxien erabiltzen den ingurunea etxea da eta jarraian Zerbitzu Sozialak.

5.3. EUSKARAREN ERABILERA ADINAREN ARABERA

Adinari dagokionez, EAEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleria bost adin-tartetan banatzen da, horretarako, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoa zehazten da.

	1991	2001	2011	2016
≥65	25,2	20,2	13,9	17,5
50-64	16,5	15,2	16,4	17,5
35-49	13,2	16,3	19,7	20,1
25-34	14,0	16,4	22,4	26,6
16-24	12,1	18,7	26,7	29,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Kultura, hizkuntza politika eta hezkuntza saila. Inkesta soziolinguistikoa.

1991 eta 2001 urte artean batutako datuak dira, euskaraz gehien komunikatzen zen adin tartea 65 urtetik gorakoei dagokiona zela egiazta daiteke. Hala ere, 2011. urteko datuak irakurtzerakoan gazteen artean euskararen erabilera hazten da, gainontzeko adin tartek berriz beherantz jaisten dira, 2016ko datuetan gauza berbera gertatzen da, orokorrean euskararen erabilera handiagoarekin.


6. DEMOGRAFIA ETA MIGRAZIO-MUGIMENDUAK

6.1. BIZTANLEEN PIRAMIDEA


Iruña Okan, gainontzeko lurraldeetan, oro har, biztanleriaren zahartzea gertatu da. Horrela, oso modu bisualean irudikatzen da 2008 eta 2016 urteetako biztanleria-piramideen konparazioaren bidez, zenbait zehaztasunekin batera.



2008ko Biztanleria



2016ko Biztanleria






Hauek dira datu garrantzitsuenak:

- 2008. urtean, talde handiena 30-34 urte bitartekoena zen. 8 urte beranduago, 40-44 urte bitartekoen taldea zen handiena.
- Iruña Oka udalerrian, 0-4 urte bitartekoen taldea 2008an biztanleriaren %5,22 izatetik 2016an %4,67 izatera pasa da. Araban, alabaina, 0-4 urte bitartekoen taldea 2008an biztanleriaren %3,83 izatetik 2016an %4,02 izatera pasa da
- 2008an, biztanle gazteak (hots, 0 eta 19 urte bitarteko biztanle-taldea) Iruña Okako biztanleriaren %19,1 ziren, gaur egun ordea %24,12ra iritsi dira eta Arabako biztanle gazteen batez bestekoa (%19,07) gainditu dute.

Denboraldi horretan izan den biztanleriaren hazkundera kontuan hartzeko beste datu garrantzitsu bat biztanleriaren dinamika da, non Udallerriaren etorkizuneko biztanlerian eragiten duten bi alderdi aintzat hartzen baitira: berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa eta migrazio-mugimendua.

6.2. HAZKUNDE BEGETATIBOA

Hazkunde begetatiboa hildako eta jaio direnen arteko kenketa da. Demografiaren funtsezko alderdietako bat dakar, migrazio-mugimenduekin batera, urte arteko biztanleria-desberdintasuna.



Iruña Okan, 2002.urtetik 2010.urterarte biztanleria hazkundera positiboa izan da. Orduan hasi zen jaisten 2016.urtera heldu arte, garai hartan berreskuratzen hazi zen berriro.

Jarraian hazkunde begetatiboaren taula agertzen da urteko biztanleriaren hazkunderarekin, eta EUSTATetik 2001-2018 urte tarteko datuetatik ondorioztatua.

Iruña Okako hazkunde begetatiboaren urteko batez bestekoa, 19,5 pertsonakoa da. Hazkunde begetatiboaren ondoriozko pertsona-kopurua Iruña Okan erroladatutako urte arteko biztanleria-hazkunderarekin alderatuz gero, urte arteko **hazkunde**




begetatiboaren batez bestekoa %25ekoa izango dela kalkulatu da; **biztanleriaren hazkundearen %78**, aurrerago egindako kalkuluan aplikatuko dena.

URTEA	Hazkunde begetatiboa (pertsona kop)	Biztanleriaren hazkundera (pertso. Kop.)
2001	-2	
2002	12	77
2003	19	49
2004	22	107
2005	11	68
2006	24	63
2007	32	55
2008	26	274
2009	35	105
2010	35	92
2011	31	-3
2012	30	119
2013	10	32
2014	18	-12
2015	15	54
2016	4	95
2017	13	48
2018	16	63
B.BESTEKOA	19,5 pertsona	75,65 pertsona

6.3. MIGRAZIO MUGIMENDUAK

Iruña Oka biztanleria erakartzeko ahalmen handiko udalerrria da, eta azken urteotan Arabako beste leku batzuetako pertsona askorentzat erreferente bihurtu da, eta, bereziki, hiriburukoentzat (Gasteiz). Migrazio-mugimenduei buruzko datuak aztertuta, nabarmendu behar da immigrazio-tasak gora egiten duela, oro har, denborarekin.





Jarraian, EUSTATEko datuetatik abiatuta udalerraren migrazio mugimenduen taula egin da, bai barnekoak bai kanpokoak (EAEari dagokionez), pertsona kopuruekin neurtuak, eta urteko migrazio saldoa ere bai. Alderdi bakoitzeko urteko batez bestekoa kontuan izan da, pertsona kopuruan neurtua.

URTEA	Immigr.	Emigr.	Kanpo Immigr.	Barne Emigr.	migr. guztira
2001	61	21	88	52	76
2002	36	30	100	74	32
2003	54	44	138	69	79
2004	52	24	184	79	133
2005	61	38	252	91	184
2006	53	38	225	103	137
2007	82	55	230	89	168
2008	72	66	192	117	81
2009	94	74	149	106	63
2010	58	67	128	157	-38
2011	80	65	169	94	90
2012	62	67	127	113	9
2013	51	49	95	115	-18
2014	74	39	115	114	36
2015	99	48	141	109	83
2016	73	48	122	147	0
2017	103	42	193	169	85
2018	129	75	178	171	61
B.BESTE	71,89	49,44	157	109,39	70,06

Azken urteotan, EAetik kanpoko jatorrietatik etorritako immigrazioa aldatu egin da, biztanleriaren %1,60 eta %3,98 artean, jarraibide finkorik gabe. Urteko batez besteko zifra biztanleriaren %2,63 izan daiteke. EAetik kanpoko emigrazioei dagokionez (%0,97 eta %2,50 bitartean aldatzen dira), 2007-2012 aldian bi puntu baino gehiago mantendu dira, eta gero behera egin dute. 2018an, berriz ere gora egin dute.

Barneko migrazioak kanpokoak baino dezente handiagoak dira. EAeko beste herri batzuetatik Iruña Okara migratu duten biztanleen ehunekoa %2,97tik-10,24ra doa, eta urteko batez bestekoa %5,63 da. 2001etol 2005era bitartean gorakada nabarmena izan zuen bere gailurrik altuenarekin, 2010era arte jaitsi zen eta ordutik modu irregularrean jokatu zuen.

Iruña Okan jatorria eta EAeko beste udalerrri batzuetan helmuga duten barne migrazioak, biztanleriaren %2,41etatik %5,15era doaz, baina jarraibide finkorik gabe. Batez besteko urteko balioa %3,76koa da.

Azkenik, zehaztu behar da zer ehunekotan eragiten duten Iruña Okako urte arteko hazkunde demografikoan hazkunde begetatiboak eta migrazio-mugimenduak osatzen dituzten alderdi desberdinetako bakoitzak. Helburu horrekin jarraian taula



bat egingo da, bertan aipatutako kontzeptuetarako urte arteko batez besteko balioak eta bakoitzari hazkunde begetatiboaren eta migrazio-saldoaren arteko guztizkoarekiko dagokion ehunekoak jasoko dira.

Biztanleria osoari, hazkunde begetatiboari eta migrazio mugimenduei buruzko EUSTATen errolda datuak alderatuz gero, desoreka batzuk daudela ikusten dugu, beraz ontzat hartzen dira urteko erroldari eta hazkunde begetatiboari buruzko datuak, kontrolatu gabeko migrazio-mugimenduak egon daitezkeela ulertzen baita. Urte arteko demografiaren %74,22ko hazkundearen migrazio-saldoa parekatu da, migrazio-mugimendu bakoitzari esleitutako ehunekoak premisa horren arabera banatzen dira. Ehunekoak urte arteko hazkunde demografikoari dagozkie.

	Urte arteko pertsona kop.	Ehunekoak
Hazkunde begetatiboa	19,5	%25,78
Kanpo immigrazioa	71,89	%76,16
Kanpo emigrazioa	49,44	%52,38
Barne immigrazioa	157	%166,32
Barne emigrazioa	109,39	%115,88
Hazku. begetatibo+ migr. Saldoa	75,65	%100

Egileak moldatutako taula.

7. PLAN OROKOR BERRIAREN PROPOSAMEN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Dokumentu honen helburu nagusia da aztertzea Plan Orokor berriaren hirigintza-proposamenek izan ditzaketen hizkuntza-eraginak, zehazki euskararenak, aurreikusitako biztanleria-hazkundeari dagokionez.

Udalerrian eragin linguistikoa duen faktore nagusia bizitegi-hazkundeen eta jarduera ekonomikoen hirigintza-proposamenak dira. Eragin hori udalerrira joaten diren biztanleen profil soziolinguistikoan egongo da.

7.1. ERAGIN LINGUISTIKOAREN IZAERA

Plan Orokorrak udalerrian soziolinguistikoan eragina izango duen ala ez neurtzeko ondorengo galdetegiari erantzun behar da:

1. Proiektuak/planak inguruko biztanle kopuruan eragingo du?
Bai. Etxebizitza berrien eraikuntzarekin inguruko biztanle kopurua handituko da, familia ereduak aldatzeaz gain, familia tamainak murrizten direlako, amaierako biztanle berriak kontuan izango ditu, bai hazkunde begetatiboagatik zein migrazio saldo positiboagatik.
2. Proiektuak/planak inguruko bisitarien kopuruan eragingo du?
Bai. Jarduera ekonomiko ikuspuntu berriak planteatzen badira, bai industrialdeak zein turismoarekin harremana duten hirugarren sektoreko



zonaldeak, eta aberastasun natural, arkitektoniko eta arkeologikoa balioan jartzea, honek biztanle gehiago erakarriko du.

3. Proiektuak/planak inguruko hizkuntza politikan eragingo du?

Bai. Udalerriaren hezkuntza egitura hobetu da Badaiaiko institutuaren eraikuntzarekin, A, B eta D eredu linguistikoak eskaintzen du. 2014an eraiki zen baina lurzoruen lorpena plan berriaren garapen eremu batekin batera egin ziren.

4. Proiektuak/planak inguruko hiztunen harreman-eremuan eragingo du?

Bai. HAPOak hiriko espazioen elkarbizitza hobetzen badu, bai parke eta plazetan zein ekipamenduetan.

Oinarrizko galdetegiaren erantzunekin ondorioa da: **Iruña Oka HAPOak eragin zuzena duela udalerriaren egoera soziolinguistikoa.**

7.2. EUSKAREN BILAKAERA INDIZEAREN KALKULUA (EBI)

Euskararen Proiektzio Indizea (EPI)

Helburua aurreikusitako bizitegi-garapen berriek (eta haiei atxikitako biztanle berriek) euskararen egungo ezagutza-mailan edo -ehunekoan izan ditzaketen inpaktuak zehaztea da.

- **Biztanleriaren hazkundera: Demografia eta migrazio mugimenduak**

Indize horrek udalerrian etorkizunean izango den biztanle kopurua kalkulatzen du. HAPOaren memorian kalkulatu denez, atal honetara eramango dugu horizonte-urterako kalkulaturako biztanle-kopuru osoa.

Aurreikusitako etxebizitza berriei lotutako biztanleria 1.166 pertsonakoa dela kalkulatu da.

Aurreikusitako hazkunde forma ondorengo taulan islatzen da, HAPOko memorian erabilitako datuetan oinarritutako dago.

2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026
3382	3506	3634	3767	3905	4047	4195	4349	4508	4672

Estimazio honek bi motatako pertsonak kontuan izango ditu, hazkunde begetatiboari dagokiona eta inpaktu soziolinguistikoa izango ez duena, eta migrazio mugimenduetatik etorri diren biztanle berriak.

Kolektibo horietako bakoitzari zer ehuneko zor zaion zehaztu behar da, etorkin berriek euskararen normalizazioan izango duten eragina eta etorkinen galera kuantifikatu ahal izateko. Horretarako, aurretik kalkulaturako ehunekoak aplikatu dira.

Urte arteko batez besteko migrazio-saldoa %74,22koa da, hau da, urte bitarteko biztanleria hazkundera dagokiona, hazkunde begetatiboa %25,78koa da. Migrazio saldoa aldi berean horrela banatuko da, urte arteko biztanleria hazkundera lotua dagoena:



- %76,16 kanpo immigrazioak
- %52,38 kanpo emigrazioak
- %166,32 kanpo immigrazioak
- %115,88 barne emigrazioak

Hazkunde demografikoaren taula eta migrazio-mugimenduetarako eta hazkunde begetatiborako lortutako batez bestekoak konbinatuta, Iruña Okako udalerritik alde egingo duten eta jatorrizko beste udalerrri batzuetatik bertan ezarriko diren pertsonen guztizko estimazioa ateratzen da, HAPOak hartzen duen epean.

URTEA	BIZT HAZKUN.	HAZK. BEGET.	KANPO IMMIG.	KANPO EMIG.	BARNE IMMIG.	BARNE EMMIG.
2019	128	+33	+97	-67	+213	-148
2020	133	+35	+101	-70	+221	-154
2021	138	+36	+105	-72	+229	-160
2022	142	+37	+108	-74	+236	-165
2023	148	+38	+113	-77	+246	-172
2024	154	+40	+117	-81	+256	-178
2025	159	+41	+121	-83	+264	-184
2026	164	+42	+125	-86	+273	-190
GUZTIRA	1166	+302	+887	-610	+1938	-1351

Hazkunde begetatiboaren ondoriozko biztanleria-hazkundeak ez du aldaketa soziolinguistikorik eragiten.

Kanpoko immigrazioak ez du euskaldunik ekarriko udalerrira, erdaldunak bakarrik.

Eragin soziolinguistikoa zehazteko, garrantzitsua da barne immigrazioaren jatorria ezagutzeta. Jatorrizko lurraldeetan euskaldunen ehunekoa aplikatuz zehaztuko da udalerrira zenbat euskaldun joango diren. Era berean, Iruña Okako euskaldunen ehunekoa pertsona kopuruari aplikatuz eta gutxi gorabehera kalkulatu emigratu egingo dutenak, udalerritik alde egingo duten euskaldunen kopurua kalkulatu da. Kantitate bien arteko diferentzia Iruña Okako egitura soziolinguistikoaren gain egongo den inpaktua ezarriko da.

Iruña Okako helmuga duten barneko migrazio-mugimenduen jatorrizko udalerrian eskualde edo lurralde historikoei buruzko errolda-daturik ez daudenez, Arabako lurralde historikoa xede duten migrazio-mugimenduekin parekatuko da, eta EUSTATEk berriz, informazio hori bai erroldatu duela.

EUSTATEtik hartutako datu berrienak 2019.urteko irailari dagokie. Ondorengo taulan islatzen dira, Araba helmuga duten barneko migrazio-mugimenduekin biltzen dituen, pertsona kopuruaren eta ehunekoaren arabera neurtuta.



Barne-migrazioen jatorria	Pertsona kop.	%
Araba	2.805	61,7
Bizkaia	1.112	24,4
Gipuzkoa	632	13,9

- **Euskaldunen portzentajearen estimazioa**

Arestian azaldutako tauletan jasotako datuetatik, HAPOak proposatutako garapenak lortzeari dagokion euskaldunen zenbatespena kalkulatu da. Egungo populazio euskaldunaren kopuruari gehitu edo kendu nahi zaio (errola ezaguna da) hazkunde begetatiboaren eta migrazio-mugimenduaren taulari jatorrizko tokiko populazio euskaldunaren ehunekoak kasu bakoitzean aplikatzearen emaitza. Gaur egungo eta 8 urteko etorkizuneko euskaldunen ehunekoaren arteko alderaketak agerian utziko du euskararen normalizazioan eraginik aurreikusten den eta zer neurritan aurreikusten den.

Kanpoko immigrazioak ez du euskaldunik ekarriko udalerrira, zenbatutako pertsonen %100 erdaldunak izango dira eta euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza hitz egingo dute. Iruña-Okako barneko migrazio-mugimenduei dagokionez, jatorrizko lurralde historiko bakoitzeko euskaldunen ehunekoak hartzen dira erreferentziatzat.

Emigratzen duten pertsonen dagokienez, udalerrira uzten duten euskaldunen kopurua kalkulatu da, biztanleria osoarekiko euskaldunen ehunekoaren arabera. Datu hori aurreko atal batean ere azaldu da.

Migrazio-mugimenduak eta hazkunde begetatiboa		PERTSONAK	% EUSKALDUN	EUSKALDUN KOP
Jaiotzen diren euskaldun kop.	Hazkunde begetatiboa	+302	%28,92	+87
Emigratzen duten euskaldunak	Emigrazioak Barne eta kanpo	-1961	%28,92	-567
Barne immigrante Euskaldun kop. Jatorrien arabera	Araba	+1196	%28,53	+341
	Bizkaia	+473	%36,62	+173
	Gipuzkoa	+269	%57,37	+154
EUSKALDUNEN GUZTIRA	HAZKUNDEA			+188

Hortik ondorioztatzen da 1166 pertsonako biztanleria-gehikuntza zenbatetsiak 188 pertsona gehituko dizkiola egungo biztanle euskaldunei. Biztanleria osoarekiko euskaldunen ehunekoei dagokienez, honela eragingo du:

	Biztanleria guztira	Biztanleria Euskalduna	%euskaldunak
Gaur egun (2018)	3506	1014	%28,92
Etorkizuna (2026)	4672	1202	%25,73



Beraz, 2016an biztanleria euskaldun guztia %28,92 zen, Plan Orokorraren hirigintza-garapenei lotutako biztanleria-hazkunderen esparruan, biztanleria euskaldun hori %25,73 dela kalkulatzen da. Honek %3aren murrizketa suposatzen du.

$$EPI = -3$$

Euskararen hauskortasun indizea (EHI)

Helburua udalerrriaren egungo egoera soziolinguistikoa zehaztea da eta bere hauskortasuna edo funtsa, egoera horretan proposatutako hirigintza garapen berriak ebaluatzeko helburuarekin eta berdin mantentzeko. Kalkulua ondorengo formularekin egiten da:

$$EHI = [(Hizkuntzaren erabilera etxean \times 2) + \% \text{ biztanleria euskalduna} + \text{etxeko hizkuntza}] / 3 + \text{Biztanle kop.} + \text{euskararen babesa}$$

$$IFE = [(1 \times 2) + 1 + 1] / 3 + 3 + 4 = 8,3$$

Era berean, faktore horietako bakoitzari lotutako balorazioa hurrengo taulan adierazitakoa da:

FAKTOREAK	ESKALA	BALIOA
Udalerrriaren biztanleria	550 biztanle baino gutxiago	6
	501-1.000 biztanle artean	5
	1.001-3.000 biztanle artean	4
	3.001-5.000 biztanle artean	3
	5.001-20.000 biztanle artean	2
	20.000 biztanle baino gehiago	1
% Biztanleria euskalduna	%90 biztanle baino gehiago	6
	%90 eta %80 artean	5
	%80 eta %70 artean	4
	%70 eta %60 artean	3
	%50 baino gutxiago	1
% Euskara ama hizkuntza bezala	%90 baino gehiago	6
	%90 eta %80 artean	5
	%80 eta %70 artean	4
	%70 eta %60 artean	3
	%50 baino gehiago	1
Euskara etxeko hizkuntza bezala	%90 baino gehiago	6
	%90 eta %80 artean	5
	%80 eta %70 artean	4
	%70 eta %60 artean	3
	%50 baino gutxiago	1
Euskara babesteko edo sustatzeko dagoen antolaketa/konfigurazioa	UEMAko kidea izan edo ESEP/EBPN eduki	0
	UEMAko kidea izan edo ESEP/EBPN eduki (Bata edo bestea)	2
	Neurri horietako bat ere ez	4



Beraz, EHIren kalkulu-balioa 8,3koa bada, **EPIren inpaktua batez besteko hauskortasuntzat jotzen da= 2**

EHI		EHIren inpaktua
2-5,9	Hauskortasun txikia	3
6-9,9	Hauskortasun ertaina	2
10-13,9	Hauskortasun handia	1
14-18	Hauskortasun oso handia	0

Euskararen bilakaera indizea (EBI)

Bere helburua euskararen bilakaera zehaztea da, planteatutako garapen berriek eragin ditzaketen inpaktuen ondorioz. Bere kalkulua ondorengo parametroen arabera eginda dago:

$$EBI = EPI + EHI \text{ inpaktua}$$

Hortaz, EBIn kalkulu ondorengo formulatik ondorioztatu daiteke:

$$EBI = -3 + 2 = -1$$

EBI Euskararen Ebaluazio Indizearen balorazioa ondorengo taulako parametroen emaitza da:

EUSKARAREN BILAKAERA INDIZEA EBI	ERAGIN OROKORRAK	ERAGIN ESPEZIFIKOAK
10<	Positiboak	Erabat positiboa
3/9		Positiboa
0/2		Nahiko positiboa
0	Neutroa	Ez du eraginik
0/-1	Negatiboak	Garrantzia gutxikoa
-2/-6		Moderatua
-7/-9		Garrantzitsua
-10<		Larria

Ondorio nagusia da, Plan Orokorreko proposamenek **eragin txikia** dutela euskararen egungo egoeran.

Iruña Okan euskara sustatzeko Ekintza Plan bat idaztea komenigarria litzateke, bertan beharrezko neurri osagarriak edota zuzentzaileak zehaztuko liratekeelarik.

Nolanahi ere, Plan Orokorrak berak esku hartzeko dituen eskumenetatik kanpo horrelako neurrien zehaztapena dago, eta eremu politikoan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen duten hizkuntza-politiken bidez hartu beharko diren neurriak dira.



8. EUSKARAN ERAGINA DUTEN PLANGINTZAKO HAINBAT ALDERDITAN HARTUTAKO NEURRIAK

Iruña Okako profil soziolinguistikoaren analisia egin ondoren eta honengan izan dezakeen biztanle hazkunde inpaktua baieztatu ondoren, Plan Orokorrak bere proposamenetan sortutako eragin negatiboaren ondorioak arintzeko hartu dituen neurriak adierazi nahi izan dira. Neurri hauek ondorengo tauletan laburbildu dira:

ALDERDI NAGUSIAK	BALORAZIOA	
ETXEBIZITZA	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
Etxebizitzen batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?	Etxebizitza librearen prezioa inguruko higiezinaren merkatuaren errealitate egokitu da, eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten biztanleen aukeretara egokitzen den etxebizitza babestua proposatu da.	Eragin positiboa. Bertako biztanleei udalerrian geratzen laguntzen die, euskaldun gutxiago baitaude.
Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	Langraiz Okako etxebizitza berri gehienak, oinarrizko zerbitzu gehienak dituzte. Zerbitzuak gehitu dira, hirugarren sektoreko erabilerak planteatuz beheko solairuetan eta ekipamendu berriak hiri-lurzoruan eta inguruetan.	Eragin positiboa. Bizitza soziala aberasten du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera errazten du.
Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	Planak eremu bakoitzeko espazio libreen arteko harremana proposatzen du, bai birsorkuntza hiri lurzoruetan zein garapen berriko lurzoruetan.	Eragin positiboa. Bizitza soziala aberasten du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera errazten du.
Etxebizitza eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?	Planak dimentsio handiko atariak sortzea bultzatzen du, horien azalera ez baita kontuan hartzen eraikigarritasunaren zenbaketan. Aldi berean, estalitako aterpeak eta eraikinaren azpiko sarbideak ez dira zenbatzen erabilera publikokoak direnean.	Eragin positiboa. Bizitza soziala aberasten du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera errazten du.



Udallerriaren hazkunde iraunkorra planteatzen da?	Planak Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetan ezarritako gehieneko mugen azpitik dagoen etxebizitza-hazkundera proposatzen du, kontzejuen artean modu orekatuan banatuta.	Eragin positiboa. Euskaldunen tasa hainbeste jaitea saihesten du, bertakoak geratzea eta kanpoko eraginak diluitzea ahalbidetuz.
Etxebizitzak eskuratzeko lehenasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?	Etxebizitza babestuen politiken bidez, udalerriko biztanleek etxebizitza prezio eskuragarrian eskuratzeko bermatzen da.	Eragin positiboa. Euskaldunen tasa hainbeste jaitea saihesten du, bertakoak geratzea ahalbidetuz.
Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?	Planaren indarraldian zehar etxebizitza berriak egiteko programazioa ezartzen du planak.	Eragin positiboa. Kanpoko biztanleriarekin pixkanaka asimilatzen laguntzen du.
Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten da?	Planak etxebizitza berriak hainbat eremutan banatzen ditu, alde batetik hiriguneak biziberrituz, eta bestetik bizitegitarako hirigunetik gertu dauden lurzoruetan hazkunde berriak planteatuz. Etxebizitza kopuru handiena Langraiz Okan proposatzen da, populazio handieneko gunea delako, eta, beraz, hazkundeak xurgatzeko ahalmen handiagoa duelako.	Eragin positiboa. Euskararenganako eragin negatiboa desagerrarazten du.

ESPazio LIBREAK	AZALPENa	ERAGINAK HIZKUNTZAN
Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak era erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	Planak espazio libreetarako azalera proposatzen ditu, eta Langraiz Okako hiriguneko hiri-eremuetan horien diseinua ere zehazten du.	Eragin positiboa. Gizarte-eta kultura-kohesioa areagotzen du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera hobetzen du.
Oinezko sareak aurreikusi al dira?	Planak oinezkoentzako sare ziur baten estrategia zehazten du.	Eragin positiboa. Gizarte-eta kultura-kohesioa areagotzen du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera hobetzen du.
Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	Planak aukerako mugikortasun sarea (oinetzkoa eta bizikletazkoa) artikulatuko du espazio librea ezberdinak erlazionatzeko.	Eragin positiboa. Gizarte-eta kultura-kohesioa areagotzen du eta, beraz, hizkuntzaren erabilera hobetzen du.
Espazio publiko irekiei	Planak espazio libreetan eta	Eragin positiboa. Ezaugarri



askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?	ekipamenduetan erabilera moldakorrak ahalbidetzen ditu, eman behar duten zerbitzu publikoaren koherentziari eutsiz.	desberdinak dituzten pertsonak elkartzea sustatzen du, gizarte-kohesioa eta bizikidetzaren hobetuz eta hizkuntzaren erabilera areagotuz.
Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da?	Planak ezin du nahasketa zehaztu, baina erabilera anitzeko aukera irekita uzten du.	Eraginik gabe.
Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira?	Planak legez eremu desberdinetan eska daitezkeen espazio libreak ezartzen ditu, kokapen estrategiko eta interkonexio baten bidez, batez ere oinezkoentzat eta bizikletentzat, horrela egungo espazio libreen sarea osatuz eta auzoetako zuzkidurak hobetuz.	Eragin positiboa. Erabiltzaileen hazkunde iraunkorrari laguntzen dio eta, beraz, erabilera errazagoa dakar.
Ekimenak garrantzi naturala historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?	Planak udalerriko natura- eta paisaia-inguruneak babesten ditu, lurzoruaren kategorizazioaren eta ondarearen katalogoaren bidez, baita kasuren batean sistema orokor gisa kalifikatuta ere.	Eragin positiboa. Lekuaren berezko ondarea babesten du, berezko kultura, hizkuntza, natura eta historia kontuan hartuta.
Espazio publiko irekiak instalazio batzuk ditu eta gizarte kohesio sustatzeko komunitate-zentroak?	Planak inguruko erabilerei dagokienez espazio libreak proposatzen ditu, horien inguruan hiri-bizitza sor dadin bultzatzeko.	Eragin positiboa. Lotura sozialak eta kultura bizitzak sustatzen du, eta beraz, hizkuntzaren erabilera.
EKIPAMENDUAK		
Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarriko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?	Planak azalerak proposatzen ditu gizarteak eskatzen duen edozein motatako erabileretara irekitako ekipamendu komunitarioak garatzeko.	Eragin positiboa. Hiritarren kultura eta integrazioa bizitza sustatzen du.
Zerbitzu hauek eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?	Planak ez du zehazten ekipamendu komunitarioen kudeaketa, baina ezartzen du erabilera publikoa izango duela antolamendu xehatuko eremuek hirigintza-estandarrak betetzeko lagatako espazioen kasuan.	Eragin positiboa. Udalerriaren hizkuntza irizpideak aplikatu daitezke.
Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak	Planak ez du eraginik politika mota hauetan.	Eraginik gabe.



egitea aurreikusten al da?		
Tokiko beharretara neurritutako ekipamenduak aurreikusi al dira?	Planak legeak eskatzen duen ekipamendu-azalera bat proposatzen du, eta modu zuzenean banatzen du, tokiko beharrei erantzuteko.	Eragin positiboa. Erabiltzaileen hazkunde iraunkorra ahalbidetzen du, eta, beraz, hizkuntzaren ezagutza- eta erabilertasak hobera egitea ahalbidetzen du.
Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?	Planaren helburua da espazio libreen eta ekipamenduen sare bat sortzea, udalerrriaren egitura izan dadin, mugikortasun-sistema bigunaren bidez.	Eragin positiboa. Ekipamenduen erabilera sustatzen du, eta, beraz, baita gizartearen integrazioa eta hizkuntzaren erabilera ere.
JARDUERA EKONOMIKOAK	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?	Planak jarduera ekonomikoetarako (industriarako eta hirugarren sektorerako) poligono berriak sortzearen eta turismoaren inguruko jarduera berriak bultzatzearen aldeko apustua egiten du. Era berean, zenbait eremutan merkataritza-lokalak ezartzea ezartzen du, jarduera hori indartzeko eta bultzatzeko.	Eragin positiboa. Auzotarrei lanean geratzeko aukera ematen die eta, beraz, errazagoa da langileek euskara jakitea eta erabiltzea.
Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?	Planak ez du eraginik politika mota hauetan.	Eraginik gabe.
Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?	Planak erabilera sorta bat eskaintzen du, hainbat jarduera mota ezar daitezten.	Eragin positiboa. Auzotarrei lanean geratzeko aukera ematen die eta, beraz, errazagoa da langileek euskara jakitea eta erabiltzea.
Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?	Planak ez du eraginik politika mota hauetan.	Eraginik gabe.
Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?	Planak ez du eskumenik horrelako politiketan eragiteko.	Eraginik gabe.
Ekonomia handiagoa aniztasun egotea bultzatzen al du?	Planak udal ekonomiaren dibertsifikazioaren aldeko apustua egiten du, erabilera	Eragin positiboa. Auzotarrei lanean geratzeko aukera ematen die eta, beraz,



	industrialeko eta hirugarren sektoreko lurzoruak proposatuz, jarduera desberdinak garatu ahal izateko.	errazagoa da langileek euskara jakitea eta erabiltzea.
Tokiko beharretara neurritutako lanpostuak sustatuko al dira?	Bai, lekuaren berezko potentzialarekin lotutako jarduera ekonomikoak sustatzen baitira (aberastasun naturala, historikoa, arkitektonikoa, arkeologikoa, etab.), bai eta erabilera industriala eta hirugarren sektorekoa ere.	Eragin positiboa. Tokiko lan beharrei erantzuten die eta era berean, kanpoko langileen ekarpena neurtzeak eragin positiboa du euskararen ezagutzan tasan.
Enpresa berriak eraikiko badira euskarari dagokionean horren sentikorra ez den gunean izatea aurreikusi al da?	Planak erabilera industrialak eta hirugarren sektorekoen zati handi bat proposatzen ditu herri guneetatik urrun dauden poligonoetan.	Eragin positiboa. Isolamendu honek ondorio negatiboen intentsitatea gutxitzen du.
JARDUERA SOZIOKULTURALA	AZALPENA	ERAGINAK HIZKUNTZAN
Planak bere proposamenen artean jasotzen al du udalerriko kultura, hizkuntza eta usadioak sustatzea?	Planak ez du horrelako neurri politikorik ezartzen.	Eraginik gabe.
Erabiliko diren irudiek eta leloek badute zerikusirik lekuarekin?	Udal zigilua eta kolore korporatiboak erabiltzen ditu Plan Orokorren dokumentuak.	Eragin positiboa. Kide izatearen zentzua indartzen du, eta prestigioa hobetzen du.
Planak kultura sorkuntza sustatzea al du helburu?	Planak ez du horrelako politiketan eragiten, baina kultura-erabilerak barne hartzen dituzten ekipamendu berriak barne hartzen ditu, Langraiz Okan batez ere.	Eraginik gabe.
Turisten eta bisitarien harrera iraunkorra proposatzen du Planak?	Planak, erabileren bidez, bisitariari eta turistei harrera egiteko aukera ematen du, baina ezin du joan-etorria arautuko duen politikarik ezarri.	Eraginik gabe.
Enpresa berriak eraikiko badira euskarari dagokionean horren sentikorra ez den gunean izatea aurreikusi al da?	Hirugarren sektoreko erabilera nagusienak turismo erabiletara lotuak daude eta hiri zentroetatik kanpo aurkitzen dira.	Eragin positiboa. Eragin negatiboen intentsitate-maila murrizten laguntzen du.
Planak irizpide linguistikoak proposatzen ditu bere	Planak hizkuntza bietan idazten da eta planeko	Eragin positiboa. Egungo egoera soziolinguistikoan



egikaritze eta idazketa fasean?	proposamenetan euskarak duen inpaktua neurtzeko txosten hau idazten da.	eraginik ez duela izango bermatzen da.
Plana gauzatu ondoren hizkuntza-irizpideak ezartzea aurreikusten da?	Planak ez du horrelako neurri politikorik ezartzen.	Eraginik gabe.
Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira?	Planak zeharkako neurriak integratu ditu. Eta ondorengo kapituluan batzen dira.	Eragin positiboa. Murriztu egin da HAPOaren garapenak eragindako inpaktua.



9. NEURRI ZUZENTZAILEAK

Honako taula honetan jasotako neurri zuzentzaile osagarriak hartu dira. Eragin soziolinguistikoak prebenitzeko esparrua ezartzen dute.

Ezkerreko zutabearen zehazten da zein kontzepturi erantzuten dion hartutako neurriak, eta eskuineko zutabearen azaltzen da dokumentuan jadanik ezarrita dagoen neurria.

IZAERA	<ul style="list-style-type: none">- Proiektu berrien izaera eremuen garapen sozioekonomiko eta soziokulturalera egokitzen da, lehendik dagoen hirian integratutako eraikuntzekin, nortasuna zainduz.- Biztanle berrien integratzearako egiturazko neurriak: auzo/etxebizitzaren antolaketa eta egitura biztanle berrien integratzearako moldatu (bertako herritarrekin harremanak garatzeko espazioak, gune komunitarioak, etxebizitzaren sarbidea, oinezkoen espazioetatik,- Tokiko toponimia antolatzearako eremuak izendatzeko erabiltzen da, identitate-sentimendua eta lekuaren parte izatearen sentimendua indartzeko.- Nortasuna babesteko espazioak mugatzen dira, mugatutako eremuetan hiri-paisaiaren nortasun-ezaugarriak zaintzea bultzatzen duen araudiarekin.
DIMENTSIOA (espaziala eta kronologikoa)	<ul style="list-style-type: none">- Benetan aurreikusitako hazkundeetara egokitzen den bizitegi-kuantifikazioa planteatzen da, inpaktuak txikiagoak izan daitezkeen eta denboran luza daitezkeen behar bezain txikiak diren dimentsioetako eremuetan banatuta.- Bizitegi-eremuak fasez-fase garatzea planteatzen da, inpaktuak denboran orekatuz, udalerririk hobeto xurga ditzan.
LEKUKOTZEA	<ul style="list-style-type: none">- Hiriguneetatik kanpo daude jende-mugimendu handiak sustatzen dituzten jarduerak (jarduera ekonomikoetarako industrialdeak, hirugarren sektoreak, Billodan turismo-sektorearekin lotutako bideo sistema orokorra, etab.); beraz, eragin txikiagoa dute euskararen ezagutzan eta erabileran.- Hazkunde eta jarduera guztiak leku berean planteatu beharrean, garapenak sakabanatu egiten dira, eta hainbat eremutan banatzen dira.
IRIZPIDE LINGUISTIKOAK	<ul style="list-style-type: none">- Ahal den neurrian, bertako biztanleen emigrazioa saihestuko da, etxebizitza babestua sustatuz etxebizitza eskuratzeari erraztuz.- Tokiko natura, historia eta ondare aberastasunarekin lotura handiagoa duten jarduerak ekonomikoak gauzatzeko erabilera eta espazio estrategikoak planteatzen dira, horrela Iruña Okako biztanleei enplegua erraztuz, emigrazioa saihestuz eta euskararen erabilera sustatuz.- HAPO egitean toponimia propioa erabili da, baita antolamendu xehatuko eremu askoren izendapenean ere.
OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none">- HAPOko dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz egin da, bai dokumentua bera, bai jendaurreko erakusketako dokumentazioa.- Herritarren arreta bi hizkuntzetan eskaini da parte-hartze publikoko prozesuan.